



URDUÑAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA
www.urduna.com



RUZABAL



Datorren 2016ko maiatzaren 4an Larruazabalgo Herri-batzarrak bere ordenantzen onarpenaren V. mendeurrena ospatuko du. Belandia, Lendoñobeiti, Lendoñogoiti eta Mendeikako kontzejuak Bizkaiko tokiko entitate txiki bakarrak dira, eta Erdi Arotik gaur arte eutsi egin diete euren instituzioei eta euren ondasunak defendatu dituzte, komunitatearen parte-hartze zabalarekin.

Urduña hiriko Udalak eta Larruazabalgo Herri-batzarrak gertaera hori hainbat ekintzekin ospatu nahi dute. 1516ko maiatzaren 4an usadio eta ohiturak onartzeko haritz zahar baten ondoan komunitatea elkartu zen tokian bertan gogoratuko dugu gertaera hori. Horretarako, Gernikako arbolaren kimua landatuko dugu, bere ondoan plaka oroigarri bat jarriko da eta, amaitzeko, Larruazabalgo instituzioen historia azalduko dugu labor-labur.

Geroago, elizan, herrixken dokumentazioa gorde den kutxa zaharra dagoen tokian, aintzinako agiritegiak gorde duen oroimena gogoratuko dugu.

Gure arbasoek sen onez eta kontzeju irekian onartu zuten testu juridikoak milurteko erdia bete du, eta hori ez dugu uste oharkabeaz joan behar den jazoera denik. Are gutxiago, ondorengo belaunaldiak gaur arte testuari eusten asmatu duten ostean.

Horrengatik guztiarengatik, Udalarentzat eta Larruazabal Herri-batzararentzat ohore handia litzateke zurekin batera izatea datorren maiatzaren 4an, asteazkena, eguerdiko 12:00etan, Herri-batzararen tontorrean, Mikel deuna izeneko landan (Mendeika), antzina Larruazabalgo Herri-batzarra egiten zen tokian; eta 12:30ean, Belandiako elizan, Herri-batzarreko agiritegia gordetzen den tokian.

Bertan elkar ikusiko dugulakoan, ondo izan.

Urduña hirian 2016ko apirilaren 18an.

El próximo 4 de mayo de 2016 la Junta de Ruzabal celebra el V Centenario de la aprobación de sus Ordenanzas. Los Concejos de Belandia, Lendoño de Abajo, Lendoño de Arriba y Mendeika conforman las cuatro únicas entidades locales menores de Bizkaia y desde época medieval hasta nuestros días, han conservado sus instituciones y defendido sus bienes, con una amplia participación de la comunidad.

El Ayuntamiento de la ciudad de Orduña y la Junta Ruzabal quieren conmemorar este hecho con una serie de actos. Precisamente en el mismo lugar en el que el 4 de mayo de 1516 se reunió la comunidad junto a un viejo roble para aprobar sus usos y costumbres, pensamos recordar este hecho con la plantación de un retoño del árbol de Gernika, la colocación a su lado de una placa conmemorativa y una breve explicación de la historia de sus instituciones.

Poco después, en la iglesia que acoge la vetusta arca donde se ha custodiado la documentación de las aldeas, se recordará la memoria que ha guardado el viejo archivo.

Medio milenio de un texto jurídico, plagado de sentido común y aprobado en Concejo Abierto por nuestros antepasados, creemos que es un acontecimiento que no debe pasar desapercibido. Menos si las generaciones posteriores han sabido adoptarlo hasta nuestros días.

Por todo lo expuesto, sería para este Ayuntamiento y la Junta de Ruzabal un honor contar con su asistencia a los actos previstos el próximo 4 de mayo, miércoles, a las 12:00 del mediodía en el alto de la Junta, campa de San Miguel (Mendeika) donde se celebraba desde tiempo inmemorial la Junta de Ruzabal y, a las 12:30 en la iglesia de Belandia que custodia el archivo de la Junta.

Esperando su presencia, aprovecho la ocasión para enviarle un cordial saludo.

En la ciudad de Orduña a 18 abril de 2016.

Urduñako alkatea / Alcaldesa de Orduña, Idoia Aginako Arbaiza

Belandiako alkatea / Alcalde de Belandia, Jon Ander Orue Mendivil

Lendoñobeitiko alkatea / Alcaldesa de Lendoño de Abajo, Mercedes Elejalde Uliarte

Lendoñogoitiko alkatea / Alcalde de Lendoño de Arriba, Josu Goti Goti

Mendeikako alkatea / Alcalde de Mendeika, Julián Elejalde Urbina

LARRUAZABALGO HERRI-BATZARREKO ORDENANTZEN ONARPENAREN

V

mendeurrena

Maiatzak 4

12:00etan Ekitaldi nagusia Mendeikan: oroitzapenezko plaka desestaliako da eta Gernikako arbolaren kimua landatuko da Herri-batzarreko tontorrean, Mikel Deuna izeneko landan.

12:30ean Belandiako elizara bisita, herrixketako agiriak gordetzen dira bertan.

Maiatzak 4

19:00etan «La comunidad de aldeas de Orduña. La junta de Ruzabal» liburuaren aurkezpena, Herri-batzarreko ordenantzaren V. mendeurrenaren, 1516-2016, Jose Ignacio Salazar Arechalderen eskutik. Urduñako Alondegian.

Maiatzak 12

19:00etan Larruazabalgo etxe eta herrixken Bizkaiko nobleziaren gaineko hitzaldia, Alberto Santana Ezquerraren eskutik. Urduñako Alondegian.

Maiatzak 19

19:00etan «Hiribildu eta lur komunitatea. Batera, baina nahastu barik» izeneko hitzaldia, Juan Manuel Gonzalez Cembellinen eskutik. Urduñako Alondegian.

Maiatzak 20

19:00etan «Garai aztoratuak Larruazabalgo Herri-batzarrean, 1808-1936», Jose Ignacio Salazar Arechalderen eskutik. Urduñako Alondegian.

V

centenario

APROBACIÓN DE LAS ORDENANZAS DE LA JUNTA DE RUZABAL

4 de mayo

12:00 h. Acto central en Mendeika: descubrimiento de una placa conmemorativa y plantación de un retoño del árbol de Gernika en el alto de La Junta, campa de San Miguel.

12:30 h. Visita a la iglesia de Belandía, donde se custodia la documentación de las aldeas.

4 de mayo

19:00 h. Presentación del libro «La comunidad de aldeas de Orduña. La junta de Ruzabal», en el V centenario de sus ordenanzas, 1516-2016, a cargo de José Ignacio Salazar Arechalde. Alhóndiga de Orduña.

12 de mayo

19:00 h. Conferencia sobre la nobleza vizcaína de las casas y aldeas de Ruzabal, a cargo de Alberto Santana Ezquerro. Alhóndiga de Orduña.

19 de mayo

19:00 h. Conferencia titulada «La comunidad de villa y tierra. Juntos pero no revueltos», a cargo de Juan Manuel González Cembellín. Alhóndiga de Orduña.

20 de mayo

19:00 h. Conferencia «Tiempos convulsos en la Junta de Ruzabal, 1808-1936» a cargo de José Ignacio Salazar Arechalde. Alhóndiga de Orduña.

